

Arratia

"Bidean Gagoz"

Arratiako Udalen Mankomunitatearen aldizkaria

2011ko martxoa, 19. zkia

Baliabide berriak ohitura berriak sustatzeko

EDITORIALA Arratia: ikuspegi berria	02
ESKOLAKO AGENDA 21 Biodibertsitatea eta mugikortasuna	03
ERREPORTAJEA Birziklatzeko ohiturak	04
ARRATIA HERRIZ HERRI Udaletxe berria Arantzazun	06
ELKARRIZKETA Jose Luis Basterra	08

www.arratia.net



Editoriala | Ikuspegi berria

Arratia 21ek formatu eta irudi berria aurkeztu du; modernoagoa, erakargarriagoa eta eduki gehiagorekin. Arratiako Udal Mankomunitatearen aldizkaria da. Etapa berrian iraunkortasunaz, ingurumenaz eta mugikortasunaz... hitz egingo dugu, bailarako herriek sortzen dituzten interes orokorreko informazioa ahaztu gabe. Helburua gehiago eta hobeto komunikatzea da.

Kale-inkestek eta bailarako eragile zein bizilagunei egindako elkarriz-

ketek espazio garrantzitsua hartuko dute aldizkarian. Eta nola ez, zuen ekarpen, iradokizun eta proposamenak gustura jasoko ditugu; zuen iritzia ezinbestekoa baita gure zerbitzuen kalitatea neurtzeko edota aldizkarian irakurri nahi dituzuen gaiak ezagutzeko.

Hondakinen kudeaketa egokia izan da etapa berriari hasiera emateko aukeratu dugun gaia; edozein gizarte modernotan guztion ahotan dagoen arazoa. Guztion ardura baita honda-

kin gutxiago sortzea, gure ingurunea zaintzea edota baliabideak optimizatzea. Zentzu horretan, Mankomunitatean burutu dugun berrantolaketa-rekin aurrerapauso itzela eman dugu bai kualitatiboki eta baita kuantitatiboki ere, harro egoteko modukoa.

Bide onetik goaz, baina ezin dugu norabidea galdu. Bailarak aurrera egin dezan ezinbestekoa da hondakin gutxiago sortzea, kontsumo arduratsua sustatzea eta eduki-ontzien erabilera egokia egitea.

Aplikazio moderno eta eraginkorrak

Informazio geografikoko sistema berri batek bailarako udalerrietako elektrizitatearen faktura eta argiak eragindako kutsadura murriztea ahalbideratuko du

Arratiako Udalen Mankomunitatea ahalegin izugarria egiten ari da zerbitzuak modernizatzeko eta gaurkutzeko, teknologiarik aurreratuenen eta aplikaziorik eraginkorrenen aldeko apustua eginez. Berrikuntzak, besteak beste, hondakinen kudeaketan eta argiteria publikoan nabarmenduko dira, eta neurri berean, efizientzia energetikoari zein garapen iraunkorrari eragingo diote.

Mankomunitateak informazio geografikoko sistema (ingelesez Geographic Information System, GIS) garatzeko

eskatu du. GISak aurrez zehaztutako lursaileko datu geografiko alfazenba-



kikoak erlazionatzen ditu, erabiltzaileen zalantzak modu zuzenean eta

oso era bisuarean argituz. Informazio hori Udalek ikusteko moduan izango da, zerbitzuetako zaintza eta analisi lanak erraztuz. Etorkizunean gainera, Mankomunitatearen eskuduntza diren beste zerbitzuetara zabaldu daiteke.

Momentuz, Mankomunitateko teknikariak bi sare horien inbentarioa egiten ari dira. Ingeniaritza enpresa bati eskatu diote proiektua garatzeko, udalerrietan egiten ari diren auditoria energetikoei eta hondakinak jasotzeko indarrean sartu den zerbitzu berriari erantzun egokia eman nahian.

www.arratia.net Bailaran nabigatu!

www.arratia.net helbideak bailarako herrietako informazio gaurkotua eskaintzen dizu. Bertan, berri hauek eta bestelakoak aurki ditzakezu. Arratian nabigatu eta egunean jarri!



Biodibertsitatea eta mugikortasuna ardatz

Mankomunitateko ikastetxeek Eskolako Agenda 21 egitasmoan lanean jarraitzen dute buru-belarri. Ikasturtean garatu dituzten ekintzen artean udaletxeetara egindako bisitak, txotxongiloen emanaldia eta Bioaniztasunaren eta Paisaiaren Diagnostikoa nabarmendu behar dira.

Dima eta Igorreko ikasleek bere herriko udaletxeak bisitatu zituzten joan den urteko abenduan. Irteera horien helburua udal instalazioak, departamentuak eta funtzioak eza-gutzea zen, eta bide batez, udalerrietako egitasmo esanguratsuenen informazioa jasotzea.

Bi udaletxeetara egindako bisitak aprobetxatuz, ikasleek Eskolako Agenda 21 egitasmoaren baitan biodibertsitatearen gaia lantzen ari dira jakinarazi zieten alkateei. Era berean, iraunkortasunaren aldeko zenbait konpromiso hartu dituztela azaldu zieten: argiak itzaltzea beharrezkoak ez direnean, ura aurreztekoa, papera berrerabiltzea eta birziklatzea, landare zein animalien espezieak gehiago ezagutzea eta na-

tura zaintzea, energia aurreztekoa, eta abar.

Txotxongiloen emanaldia

Eskolako Agenda 21en baitan, Lasarte Aretoan eta Dimako ikastetxean txotxongiloen emanaldiak ere antolatu zituzten urtarrilaren 19an. Bihibi's antzerki taldeak *Den dena niretzat* ikuskizuna eskaini zuen bi gai hauek jorratuz: basoen zaintza

eta airearen kutsadura. Dima eta Igorreko 400 ikasle inguruk jarraitu zuten ikuskizuna.

Arratiako Institutuko ikasleek ere Igorreko udaletxea bisitatu dute. Mugikortasuna lantzen ari dira eta horren baitan, Herri-diagnostikoa egiten ari dira eta Arratia zein Igorreko Mugikortasun Planen inguruan hitzaldia antolatu dute.



Diagnosia

Eskolako Agenda 21 egitasmotik aldendu gabe, baina gaiz erabat aldatuz, Dima eta Igorreko ikasleak prestatzen ari diren Bioaniztasuna eta Paisaiaren Diagnostikoak aipamen berezia merezi du. Aurkeztu dituzten txostenak bi udalerrietan egindako ikerketa lan neketsuaren ondorio dira. Batean zein bestean, kapituluka, jarraian zehazten dugun edukia aurki dezakegu: Natur eta paisaia baloreak; Interesa duten eta babestuta dauden eremu naturalak; Herri eta eskualde mailan ingurumena babesteko garatutako ekintzak eta Ondare natural eta biodibertsitateari buruzko legedia.

EŠKOLA AGENDA 21

BIOANIZTASUNA ETA PAISAJA



Igorreko Diagnostikoa 2.010-2.011 ikasturtea

EŠKOLA AGENDA 21

BIOANIZTASUNA ETA PAISAJA



Dimako Diagnostikoa 2.010-2.011 ikasturtea



Hondakinik onena, sortzen ez dena

Erosketa ohitura egokiak hartuz gero ezinbestekoak diren hondakinak baino ez genituzke sortuko

Instituzioetan adosten ditugun helburuak herritarrei modu desegokian helaraztea sarritan errepikatzen den hanka-sartzea da. Erreportajeko titularra adibide egokia da, inozoenak ere badakielako hondakinik onena sortzen ez den hori dela. Helburuak zehaztea edo proposamenak mahai gainean jartzea erraza da, hitzetatik ekintzetara pasatzea, ordea, nekezagoa da. Baina behar-beharrezkotzat ikusten dugu Mankomunitateko herritarrak sentsibilizatzea, eta ohartaraztea, ohitura egokiak hartuz gero, ezinbestekoak diren hondakinak baino ez genituzkeela sortuko.

Etxez etxeko hondakinen bilketa datuak jasotzen dituen txostenaren arabera, Arratiako Mankomunitateko biztanle bakoitzak 450 kilo zabor sortu zituen 2009 urtean. Txostenak uzten duen beste datu esanguratsua hau da: egun, sortzen diren hondakinen % 80 birzikla genituzke, baina ez dugu % 30eko langa gainditzen.

Krisi garaian gaudela kontuan har-

tuz, ez birziklatzeak zenbateko diruxahuketa eragiten duen jakitea ez dago soberan. Edo gutxienez, zer pentsa eman beharko liguke. Agian, hiruko erregela honek lagun gaitzake: ez birziklatzeak lehengaien garestitzea dakar baliabide naturalak ez direlako agortezinak, alderantziz, geroz eta urriagoak dira.

Arratiako Udalen Mankomunitatean

zezenari adarretatik heltzeko garaia dela pentsatzen dugu. Sortzen ditugun gehiegizko hondakinak gutxitzeko ohitura egokiak hartzea gure esku dago, herritarren eta instituzioen esku.

Instituzio bezala helburu bat jarri diogu gure buruari, epe laburrean betetzeko eta zuen laguntzarekin gauzatzeko. Arratian sortzen ditu-

Instituzio bezala helburu bat jarri diogu gure buruari; Arratian sortzen ditugun hondakinak azken fasera heldu baino lehen modu egokian tratatzea

gun hondakinak azken fasera heldu baino lehen modu egokian tratatzea da, hain zuzen, helburu hori. Hondakin motaren eta egoeraren arabera, 3Rak bezala (gutxitu, berrerabili eta birziklatu) ezagutzen den prozesua abiatuko dugu. Azken xedea da hondakinak bota aurretik tratatzea.

Zabor gutxiago sortzea gure aukera da. Edo zalantzan jartzen duzue arreta gehiagorekin hondakin kopurua gutxitzeko daukagun gaitasuna? Ohiturak aldatzea behar-beharrezkoa izanago da, eta badakigu ohiturak aldatzea oso nekeza dela, baina kontsumo arduratsua guztion mesederako da.

Beste bi Rak (berrerabili eta birziklatu) gauzatzeko gizartearen parte hartzea

4Ren kontzeptua eraginkorra izan dadin, hondakinaren gaikako bilketari arreta gehiago behar du. Gakoa ez baita bereiztea, ondo bereiztea baizik

beharrezkoa da. Herritarren inplikazioak hondakinak gaika biltzea eta hondakin bakoitza eduki-ontzi egokian jasotzea erraztuko lukeelako, berrerabiltzea eta birziklatzea erraztuz.

Azken aldia 3Ren kontzeptua laugarren batek zabaldu du: konpondu. Erabilera bakarreko objektuen aurrian bestelako produktuen aldeko hautua egiteko deia luzatu nahi dugu; ezaugarri hauek kontuan hartzea garrantzitsua da: ordezko piezak ekartzeta, energia gutxi kontsumitzea eta erraz konpontzeko modukoak izatea.

Eta 4Ren kontzeptua eraginkorra izan dadin, hondakinaren gaikako bilketari arreta gehiago behar du. Gakoa ez baita bereiztea, ondo bereiztea baizik.

Bidean gagoz?

Jarraian, erraz jarraitzeko zenbait aholku praktiko zuengana-tu nahi ditugu:

- › Brikak, pixa-oihalak eta paper zikina ezin da bota papera eta kartoia birziklatzeko eduki-ontzietara.
- › Kartoiak tolestu eduki-ontzietara bota aurretik, besteek ere kartoi edo paper gehiago sartzeko aukera izan dezaten.
- › Usai txarra ekiditeko zabor poltsak gaez bota.
- › Beira birziklatzeko eduki-ontzietara ezin da puskatutako leihoetako kristalik, ispilurik, kristalezko edalontzirik, bonbillarik, katilurik ez platerik bota -kristala ez da beira-.
- › Eduki-ontzi horietan metalezko ontziak (edarien latak, kontserba latak, tapak, eta abar), plastikozkoak (plastikozko edateko botilak, jogurten plastikozko ontziak, garbiketarako produktuek, eta abar) eta brikak baino ezin dira bota.
- › Eduki-ontzia ez baduzu ohiko lekuan bilatzen, inguruan begiratu, ez baita oso urruti egongo.

Gaikako hondakinaren bilketako beste zerbitzuak:

Tamaina handiko hondakinaren gaikako bilketa:

etxe-tresnak, altzariak, koltxoak, somierrak, eta abar.

Aldez aurretik eskatuz gero, doako zerbitzua. Tel.: 946311717

Botikak: farmazietan.

Igorreko Garbigunea / T: 94 631 52 91 / 94 403 40 90 / Partikularrak, kometzio txikiak, bulegoak eta etxetako obra txikiak: HONDAKIN GELDOAK (obra-hondakinak, kristalak, konketak...); EGURRA (armairuak, aulkiak, kaxak, atek...); PLASTIKOAK (pertsianak, jostailuak, aulkiak, bilgarriak...); TXATARRA (erradiadoreak, bizikletak, antenak, aulkiak, bidoiak...); LINEA ZURIA (hotz-gailuak, garbigailuak, mikrouhinak...); LINEA MARROIA (telebistak, bideoak, ordenadoreak, musika kateak...); PAPERETA ETA KARTOIA; PNEUMATIKOAK; LOREZANTZA (kimatze-hondarrak, zuhaixkak...); METATZAILEAK ETA BATERIAK; OLIOAK; BEIRAK; ONTZIAK; BESTELAKOAK (fluoreszenteak, telefono mugikorak, tonerrak, CDak, DVDak, jostailuak, sukaldeko tresneria, liburuak...).

TAPARI ERREPARATU



Papera eta kartoia (**tapa urdina**) eta hondakin organikoak (**tapa grisa**) birziklatzeko 3.200 litroko eduki-ontziak.

Arratia *herriz herri*

DIMA

Hiri-gunean zuntz optikoa jartzeko hitzarmena

Dimako Udalak eta Euskaltel enpresak berriki sinatu duten hitzarmenari esker, dimoztarrek kable bidezko telebista digitala, banda zabala eta telekomunikazio sistema aurreratuenak izango dituzte 2011n. Hitzarmenean jasotzen denaren arabera, udalak telekomunikazio azpiegitura –ia-ia bost kilometro– enpresaren zerbitzura jarri du. Euskaltel enpresak, berriz, hedatze lanak egiteko konpromisoa hartzen du. Ugaranako hiri-gunean hasiko da lan horiek egiten, eta lehenengo fase hori amaitzean, sarera konektatuta dauden gainontzeko auzoetan jarraituko du. Egitasmoak 300.000 euro inguruko inbertsioa eskatu du eta Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntza jaso du.

Joserra Garai Dimako alkatearen hitzetan, “*hitzarmena oso positiboa da, udalerriko enpresek eta herriko gazteek eskatzen dizkiguten zerbitzuei erantzuteko ahalmena ematen digulako*”.

BEDIA

Genero berdintasuna gizonezkoen ikuspuntutik

Udala ikerketa bat egiten ari da udalerriko gizonezkoek genero berdintasunaren inguruan daukaten iritzia eta parte hartzea ezagutzeko. Bediako gizonezkoek galdeketa bidali zaie etxebizitzetara eta, bigarren fase batean, telefono bidezko elkarrizketekin osatuko da. Ikerketaren emaitzak Berdintasun Sailak etorkizunean egingo dituen plangintzetan kontuan izango dira.

Udaletxetik eskerrak eman nahi dizkiete inkesta erantzun duten guztiei: “*Herriko gizonek erantzun paregabea eman dute eta jasotako ekarpen kopurua ere handia da*”, nabarmendu dute.



Udaletxe berria modernoa eta iraunkorra da.

ARTEA

Abiaduraren aurkako sakanguneak

Udalak gehiegizko abiaduraren aurkako neurriak hartu ditu Areatzako (Biteri, Ugarte y Astui) eta Zeberioko norabidean sakanguneak jarritz. Bere garaian, Ertzaintzak abiadura kontrolatzeko zenbait kanpaina egin zituen –isun asko jarri zituzten–, baina kanpaina amaituta, auto-gidariekin berriro ere gehiegizko abiaduran gidatzen jarraitzen dute.

Udal arduradunek abiadura mugak errespetatu behar direla gogorarazi nahi dute, istripuak ekiditeko eta oinezkoak ez harapatzeko. Hiri-gunean legeak ezarri duen abiadura muga 50 km/h da.

ARANTZAZU

Udaletxe moderno eta iraunkorra

Arantzazuk udaletxeko eraikin berria estreinatu du. Zaharbertitze lanek 700.000 euroko inbertsioa izan dute, eta eraikina iraunkortasun, eraginkortasun energetiko eta balioaniztasun eredu bihurtu dute. Eraikin berriaren administrazioak, aisialdiak eta kulturak espazioa partekatzen dute.

Eraikin nagusiak garai batean zerbitzu municipalak biltzen zituen, eta orain berriro dute, harrizko baserri zeharrean mantentzen da. Aldamenean altza dute eraikin berriaren ezaugarri nagusia beiratea da, kaleko argia gela guztietara sartzen uzten baitu.

◀ Eraikin berriaren bertute nabarmenena eraginkortasun energetikoa da; ura, esate baterako, teiltuan dagoen eguzki-plakaren bitartez berotzen da; ez dago berogailurik, bere ordez beroa lurrazalek banatzen duten sistema berritzailea jarri dute, gela guztietan tenperatura bera mantenduz.

LEMOA

Berdeguneak eta argiteri eraginkorra Intzuntzan

Intzuntza auzoak itxura berria izango du hilabete gutxiren baitan. Auzoak 59.000 metro karratuko espazioa hartzen du eta bertako etxebizitzak orain 40 urte baino lehenago eraikitakoak dira. Bir-moldaketa eta urbanizazio lanak egiteko udalak 500.000 euroko aurrekontua bideratuko du eta aurreratu dutenez, abuzturako aparkatzeko plaza eta berdegune berriak izango dira, auzoaren itxura eta auzotarren bizi kalitatea hobetuz. Era berean errepideak eta espaloiak asfaltatuko dituzte, autoentzako aparkaleku gehiago jarriko dira eta trafikoa arautuko da.

Horrezaz gain, berdeguneak lorategiz eta zuhaitzez hornituko dira. Era berean, hiri-altzariak berri eta argiteria publiko berria jarriko da.

Zaharberritze lanek atalondoetako zein hiri-elementuetarako irisgarritasun arauak betetzen dituzte.

AREATZA

CAR FREE AREATZA: berrikuntza mugikortasunean

Udalak aurkeztu duen egitasmoa UDALSAREA21eko Idazkaritza Teknikoak antolatu duen “Berrigumena 2010 Ideia Lehiaketa Programan” parte hartzeko hautatu dute, hain zuzen berritzaileak diren proiektuen atalean.

Car free Areatzak (Areatza autorik gabe) auto pribatuaren erabilera arduratsua eta arrazionala sustatu nahi du. Horretarako autoa partekatzeko zerbitzua indartu nahi dute eta, bide batez, negutegi efektua sortzen duten gas emariak, motordun ibilgailuen errolda eta auto pribatuak eragiten dituen gehiegizko gastuak gutxitu.



Autoaren erabilera arrazionala sustatzeko ekimena.

ZEANURI

Gimnasio berria, modernoa eta irisgarria

Hemendik aurrera Zeanuriko bizilagunek kirola eginez gozatzeko aukera izango dute udal kiroldegiri berri eta modernoan. Eraikuntza lanak Estatuko Inbertsio-fondoak bideratutako diru-partidarekin gauzatu dira.

Gimnasioa oso argia da, irisgarritasuna bermatzen du eta antolatu dituzten kirol-jarduerak modurik egokienean egiteko aukera ematen du: erretiratuentzako gimnasia, aerobic-a, yoga, eta abar.

Ikastaroen prezioa 15 eurokoa da hileko –jubilatuek eta haurrek ez dute sarrerarik ordaindu behar–.

IGORRE

Igorreko landa-auzoetarako garraiobide zerbitzua

Udalak IGOTRANS garraiobide zerbitzua jarri du martxan. Landa-auzoetan bizi diren herritarrei zuzendua, publikoa, gertukoa, azkarra, malgua eta merkea da. IGOTRANSen xedea da landa-auzoetan bizi diren herritarrei udalerrian eskaintzen diren zerbitzuetara (osasuna, merkataritza, administrazioa, aisialdia...) gerturatzeko aukera ematea.

Zerbitzua ematen duten taxiak bi ibilbide mota egiten dituzte: finkoak, Igorrebasa eta San Kristobal auzoetatik egunero pasatzen direnak eta, birtualak, eskariaren arabera hiru ibilbide betetzen dituztenak aurreko egunean 902 540 890 telefono zenbakian txanda eskatu ondoren. Bidaia bakoitzaren prezioa 1 eurokoa da eta erabiltzaileek txartelak udaletxean jaso behar dituzte.

Martxotik aurrera IGOTRANS zerbitzua astartetan, ostegunetan eta ostiraletan izango da.

Ezagutzen al dituzu energia aurrezteko baliabideak?

Kalera atera gara Arratiako Mankomunitateko bizilagunen energia aurrezteko baliabideak ezagutzen dituzten galdetzerara. Hona hemen jasotako zenbait erantzun.



**Josu Manterola
Zeanuri**

Ezagutzen ditut, prentsan irakurri dut horren inguruko informazioa eta hitzaldi batean ere izan naiz. Guk etxean kontsumo baxuko bonbillak jarri ditugu, baina fakturan ez da gehiegi nabari.



**Leire Marmolejo
Arantzazu**

Badira hiruzpalau urte etxean kontsumo baxuko bonbillak jarri genituela. Telebistan ikusi genuen eta egia aitortu behar badut, ingurumen arrazoiengatik baino gehiago moda kontuagatik jarri genituen.



**Josu Mikel
Agirrezabalaga - Igorre**

Kontsumo baxuko bonbillak ezagutzen ditut; garestia-
goak diren arren, epe luzera merkeagoak direla badakit. Instituzioek gehiago informatuko balute jende gehiagok erabiliko lituzkeela iruditzen zait.



**Jon Hidalgo
Dima**

Etxean kontsumo baxuko bonbillak erabiltzen ditugu, baina sutan jartzen naiz kaleko argiztapena zerura begira ikustean, dirua alferrik galtzea dela iruditzen zait. LED sistema erabili beharko lukete.

Jose Luis Basterra, Areatzako Hirigintza, Lanak eta Udal Zerbitzuak saileko zinegotzia

“Energia elektrikoan % 50 aurreztu dugu”

Areatzako Udalean zenbait neurri hartu dituzue energia kontsumoa gutxitzeko. Zein dira neurri horiek eta zergatik hartu duzue erabakia?

Bi dira arrazoi nagusiak: batetik, energia elektrikoa aurrezte eta, bestetik, CO2 isuriak gutxitzea. Helburu horrekin argiteria publikoko ohiko lanparak aldatu ditugu; orain aurrekoak baino eraginkorragoak diren indukziozkoak eta LED sistemakoak jarri ditugu. Bestetik, eraikin publikoetan (udaletxea, ikastetxeak, ...) kontsumo baxuko argiak jarri ditugu eta ate zein leihoetako isolamendu termikoa hobetu dugu. Azkenik, froga moduan, hiri-gunetik urrun xamar dagoen auzo batean bakarrik elikatzen diren LED sistemako eguzki farolak jarri ditugu.

Neurri horiei esker zenbat energia aurreztuko duzue?

Gutxi gorabehera, % 50. Argiteria publikoan egin ditugun aldaketekin bakarrik, urtean 67 tona CO2 gutxiago isuriko ditugu.

Udalak hartzen dituen mota honetako erabakiak herritarren artean eragina dutela uste duzu?

Baietz esango nuke. Gure etxe blokean, esate baterako, kontsumo baxuko bonbillak jarri ditugu garaje eta eskaileretan. Kanean ere antzematzen da; herritarrek galdetzen dute ea zergatik aldatu ditugun lanparak eta nik energia eta mantenu gastuak aurrezteko dela erantzuten diet.

“Herritarrek sentsibilizatze-ko ekintzaren bat antolatu nahiko genuke: energiaren astea, hitzaldiren bat edo antzeko zerbait”



Sentsibilizazio kanpainak eraginkorrak izaten dira. Zerbait egiteko asmorik ba al duzue?

Hala da. Zentzu horretan herritarrek sentsibilizatzeke zer egin dezakegun aztertzen ari gara: energiaren astea, hitzaldiren bat... edo antzeko zerbait.